

## **2019ko BAIONAKO BESTETAKO AFITXA LEHIAKETAREN ARAUDIA**

### **1] AITZINSOLASA**

Baiona Hiriak antolatu lehiaketa honen helburua, 2019ko Baionako Bestetako afitxa ofiziala burutzea da.

Atxikiak izanen diren bost hautagaiek, beherago zehaztu moldeen araberako egitasmoa aurkeztu beharko dute.

### **2] BALDINTZAK**

**2.1** Lehiaketa, kontseilutik kanpoko bestetako batzordeak hautatu bost sortzaile grafistei baizik ez zaie irekia.

Lehenik, Komunikazioa, herritar elkarrizketa eta lurralde erakargarritasun Zuzendaritzak hamar, hamabost sortzaile grafiko aitzin atxikitzen ditu, hauek Baiona Hirian haien hautagaitzak aurkeztu ondoren. Hamar, hamabost sortzaile grafiko hauek kontseilutik kanpoko Baionako Bestetako batzordeari proposatuak dira. 2019ko Baionako Bestetako afitxa sortzeko lan eginen duten bost hautatzen ditu.

2019ko afitxa lehiaketaren irabazleak ezingo du bebre burua aurkeztu 3 urtez, erran nahi baita Baionako Bestetako 2022ko lehiaketarako.

**2.2** Bost hautagaiek ondokoak hornitu beharko dituzte, bestenez haien hautagaitza ez da onartua izanen:

- egitasmoa dokumentu honetan zehaztu moldeen arabera;
- « Hautagaiaren engaiatzea » erantsirik, beterik, data emanik eta izenpedurarekin.

**2.3** Ondoko klausulak errespetatu beharko ditu egitasmoak:

- a) Bisualaren izariak: 70 cm zabal x 100 cm gorako formatu bukatua.

**70 cm-ko zabalera x 100 cm-ko goratasun formatuko bereizmen handiko PDF fitxategi moldean, 300 dpi-an eta CMJN moduan, bai eta 21x29,7 cm formatuko jpeg fitxategia 300 dpi-an eta RVB moduan hornitu beharreko proposamen grafikoa.**

Ondoko testuak agertu beharko dira: lehen irakurketa mailan eta titulu nagusi gisa: « Baionako Bestak 2019ko uztailaren 24tik 28ra », bigarren irakurketa mailan eta bigarren titulu gisa: « Baionako Bestak » eta « Las Hèstas de Baiona ».

Hautagaiek haien sortzaile izenpedura agerrarazi beharko dute ere obraren gainean. Beste neholako aipamen edo izenpedurarik ez da agertuko. Irabazlearen egitasmoaren azken erabilpenean, Baiona Hiriak afitxaren azpiko aldean eta ttipiz gehituko ditu komunikaziorako beharrezkoak diren elementuak (telefono zenbakia, logoak, internet gunea).

Baiona Hiriak galdegiten balu testu hau aldatzea, irabazlea engaiatzen da bere egitasmoa horren arabera egokitzen.

b) Hautagaiek beharko dute ere aurkeztu haien bisualaren egokipena oihalezko jantzi baterako (larru arraseko modukoa) basoberri baterako (Ecocup edalontzi motakoa).

Egitasmoak izpirituko jatorrizko sorkuntza bat izan beharko du. Hautagaiek segurtatzen dute proposmen grafikoari lotu eskubide guzien jabe direla.

c) Baiona Hiriak baztertzen ahal ditu politika, erlisionea, edozoin polemika edo aipamen laidogarriak aurkezten dituzten egitasmoak.

d) Hautagaiek, bisuala sortzean aintzat hartu beharko dute irabazleak (berantago) sortzeko fitxategi bat (Photoshop, Illustrator, Indesign...) ekarri beharko duela:

- Z70 x G100 cm-ko formatuan
- CMJN,
- 300 dpi
- tipografia bektorizatuekin hala behar izanez gero

e) Azpimarratzekoa da jatorrizko bisuala halaberrez grafista batek edo komunikazio agentzia batek egoki ditzaketela, publizitate beharrengatik.

### 3] EGITASMOEN ESKURATZEA – HAUTAGAITZEN ONARPENA

Hautagaiek haien egitasmoa **berantenik 2019ko azaroaren 26an, ostiralarekin 12:00ak aitzin** posta elektronikoz helarazi beharko dute, helbide honetara: communication@bayonne.fr

### 4] IRABAZLEAREN HAUTAKETA

Bi bozkaldi burutu ondotik, eta justizia uxer batek ikuskaturik, hautatua izanen da 2019ko afitxa.

#### 4.1. Kontseilutik kanpoko batzordearen bozkatzea

Kontseilutik kanpoko batzordearen bozkatzeak, bukaerako emaitzaren %50a osatzen du. Batzordeko kide bakoitzak egitasmoak beheragoko irizpideen arabera notatuko ditu, komunikazio helburuak egoki betetzen duen obraren alde bozkatzeko laguntzeko.

Nota onena lortzen duen afitxa hautatzen du.

Afitxak, ehunekotan adieraziak izanen diren bozak behehiko ordenean sailkatuak izanen dira. Egitasmoak epaitzeko irizpideak ondokoak dira:

Irizpideak	Notatzeko moldeak
Kontzeptua	5en gain notatua
Baionako Bestetako izpituaren errespetua	6en gain notatua
Kalitate artistikoa	5en gain notatua
Egitasmoaren egokitarritasuna afitxa eta produktu eratorriei	4en gain notatua
	Nota orokorra 20en gain

## 4.2. Publikoaren bozkatze elektronikoa

Publikoaren bozkatzeak, bukaerako emaitzaren %50a osatzen du; publikoak edo Internetez (fetes.bayonne.fr ou bayonne.fr) edo Baionako Euskal Museoa (37 Kortsarioen kaia, asteartetik igandera, 10:30etatik 18:00etara irekia) 2019ko otsailaren 15a, ostiraleko 12:00etatik martxoaren 3, igandeko gauerdia arte bozkatzen ahalko du eta 5 egitasmoak 2019ko otsailaren 15etik martxoaren 3a arte bertan aurkeztuak izanen dira; ordenagailuak publikoaren eskura utziak izanen dira internetez bozkatzeko gisan.

Publikoak egitasmo bat hautatzen du 5 proposamenen artean. Afitxak, ehunekotan adieraziak izanen diren bozen behetiko ordenean sailkatuak izanen dira.

15 urte eta goragoko pertsona orok, eta adina frogatu ondoren bozkatzen ahal du (adibidez: ikasle karta, klub bateko karta). Antolatzaileak beharrezkoak diren egiaztatze guziak egin ditzake parte hartzaileen nortasuna, posta helbidea eta/edo elektronikoari dagokienez. Pertsona batek behin baizik ez du bozkatzen ahal. Bozkatze bat baizik ez da onartua izanen mail helbideka.

Antolatzaileak lehiaketa ezeztatu, gibelatu, gelditu edo luzarazteko edo araudi honen molde guziak edo parte bat aldatzeko eskubidea du, beti honen errespetuan. Berak eragin ez duen edozoin gertakari baten ondorioz, eskubide hau aplikatzera behartua balitz, ez daiteke horren erantzule izan.

Iruzurra erabiliz, lehiaketaren martxa tratatzen duen pertsona oro, betirako kanporatzeko eskubidea du antolatzaileak. Bestalde, alegiazko pertsonak erabiliz gero, lehiakide oro berehala kanporatua izanen da. Era berdinean, lehiaketa gunean plantan ezarri interfazetik kanpo erabiltzeko saiakera oro iruzur saiakera bezala hartua izanen da. Bestalde ere, idazki pertsonala edo araudi honetan aurreikusi erabilpena saihestea bilatzen duen beste metodo oro iruzur saiakera gisa hartua izanen da ere, eta bozkatzailearen berehalako eta errekursorik gabeko kanporatzea eragin dezake.

## 4.3. Bukaerako emaitza

Kontseilutik kanpoko bozkatzearen emaitzak (bukaerako notaren %50) eta publikoaren bozkatzearenak (bukaerako notaren %50), ehunekotan agertu batez bestekoan adieraziak izanen dira. Ehuneko handiena lortuko duen egitasmoa Baionako Bestetako 2019ko afitxaren lehiaketako irabazlea izanen da. Irabazi duen egitasmoa 2019ko martxoan argira ekarria izanen da, prentsaurreko baten bitartez eta bayonne.fr eta fetes.bayonne.fr guneetan.

## 4.4. Konfidentzialtasun politika – Datu pertsonalak

### 4.4. 1 Datu pertsonalen bilketa eta tratzea

[bayonne.fr](http://bayonne.fr) internet gunearen bidez bildu internauten datu pertsonalak Informatika eta Askatasunak deitu 1978ko urtarrilaren 6ko 78-17 legearen xedapenak errespetatuz tratatuak izanen dira.

Tratatzearen arduraduna, gunearen argitaratzailea da, beherago adierazi bezala:

- Argitaratzailea: Baiona Hiria
- Helbidea: 1 Maréchal Leclerc etorbidea, 64109 Baiona cedex - BP 60004
- SIRET: 216 401 026 00 366
- APE: 8411Z
- e-posta: [m.le.maire@bayonne.fr](mailto:m.le.maire@bayonne.fr)
- Telefonoa: 05 59 46 60 60

[www.bayonne.fr](http://www.bayonne.fr) gunean bildu datu pertsonalak guneako argitaratzaileari baizik ez zaizkio zuzenduak. Ez zaio datu pertsonal bat ere beste bati eman edo jakinaraziko. Datu hauek, bozkatzeak internetez hartuak izateko eta sailkapen bat burutzeko erabiliak dira.

Lehenago aipatu legeari jarraikiz, internautak, berari dagozkion datu pertsonaletan sartzeko, hauen zuzentzeko edo kenarazteko eskubidea du. Eskubide honen erabiltzeko, internautak bere eskaera honela bidera dezake:

- e-mezuz: [m.le.maire@bayonne.fr](mailto:m.le.maire@bayonne.fr)
- edo gutunez: Mairie de Bayonne Hôtel de Ville 1 avenue Maréchal Leclerc - 64109 Bayonne cedex - BP 60004

Internautak bere datuak biltzeari uko egiten ahal dio.

Hala ere, internautari jakinarazten zaio [www.bayonne.fr](http://www.bayonne.fr) gunean agertzen den inprimaki baten bitartez komunikatu datuak eta nahitaezkoak bezala identifikatuak direnak, behar dituela Baiona Hiriak tratatzeko gisan. Ondorioz, datu hauek ez dira tratatuak izanen internautak ez baditu ematen.

#### **4.4.2. Cookiak**

Erabiltzaileari jakinarazten zaio, gunea bisitatzeko duelarik, cookie bat automatikoki plantatzen ahal dela bere nabigazio programan. Erabiltzaileak identifikatzea ahalbidetzen ez duten baina berak gunean egin nabigazioari lotu informazioak grabatzeko balio duten datu bloke bat da Cookie bat. Nabigazio programaren parametratzeari esker, abisatzen ahal da cookie bat dagoela eta, hala beharrez, CNIL-eko gunean ([www.cnil.fr](http://www.cnil.fr)) zehaztu baldintzen arabera posible da ez onartzea.

Erabiltzailea, Cookieen bitartez komunikatu datu pertsonaletan sartzeko, hauen kenarazteko eta aldarazteko eskubidea du gorago zehaztu baldintzen arabera.

### **5] SARIAK**

Lehiaketaren irabazlearen ordainsaria lau mila eurotan finkatua da (4 000 € ZGB). Kopuru honek merkatuaren irabazlearen ordainsaria eta Baiona Hiriak, CCAG PI-ko B.25 artikulua eta ondokoen arabera librokiko ustiatzeko (ikus 6. pasartea) izaera oroko eskubideen erostea estaltzen ditu. Aldi batez emana izanen zaio markatuaren irabazleari, honek faktura bat aurkeztu ondoren.

Beste lau sortzaileei 500 € emanen zaie.

### **6] ARAUDIAREN GORDABIA**

Plantan ezarri orduko, araudia aplikatzen zaio lehiaketari eta justizia uxer asoziatu bulego honetan pausatua da: SCP NOEL Wilfried, TARDY Frédéric, BOUSQUET Manuel, 18 Légion Tchèque etorbidea, 64100 Baiona. Araudi hau urrik eskuratzen ahal da lehiaketako antolatzaileari ondoko helbidera eskatuz: Mairie de Bayonne, Hôtel de ville, 1 avenue Maréchal Leclerc - BP 60004 - 64109 Bayonne cedex. Edo Baiona Hiriko gunean ([bayonne.fr](http://bayonne.fr)) deskargatuz.

## **7] OBREN ERREPRODUKZIOA – ESKUBIDEEN ESKUALDATZEA**

Jabego intelektuak eskubideei dagokienez, 2009ko irailaren 16ko agindutik datorren zerbitzu intelektualetako merkatu publikoei aplikagarriak zaizkien Administrazioako Klausula Orokorren Bildumako (CCAG PI) B opzioa atxikia izan da. Koadro horretan, irabazleak haren egitasmoa eta sortzezko fitxategiak bai honen eta ustiatze, merkaturatze eskubide guziak, besteak beste euskarri guzientzako erreprodukzioa, mundu osoan, ondare eskubideen legezko iraupen guzira, Baiona Hiriari eskusiboki utziko dizkio.

Ondorioz, egitasmoa sar daiteke Baiona Hiriak egin dezakeen marka erregistratuen ustiaketan, honek berak eskubide batzuk beste batzuei uzten ahal dizkio (produktu eratorrien kudeaketaz arduratzen den Bayonne Promotion). Azkenik, atxikiak izan ez diren egitasmoen sortzaileei debekatua zaie haien obrak merkaturatzea, « Fêtes de Bayonne » izendapena Baiona Hiriak pausatu marka bat izanki.

## **8] ERAKUSKETA – KOMUNIKAZIOA**

Egitasmo guziak, irabazlearena barne, erabiliak izan daitezke Baiona Hiriko komunikazioetan edo erakusketan aurkezteko, neholako ordainsaririk gabe.

Baiona Hiriak du egitasmoen erakusketa antolatzen eta hautagaiek ezin dezakete zalantzan ezarri.

## **9] ARGIBIDE GEHIGARRIAK**

Edozoin argibide gehiago behar izanez gero, Baiona Hiriari zuzendu behar zatzazkiote:

Direction de la communication, du dialogue citoyen et de l'attractivité territoriale  
Hôtel de Ville  
1 Maréchal Leclerc  
BP 60004  
64109 Bayonne cedex

Telefonoz: 05 59 46 60 40

E-postaz: [communication@bayonne.fr](mailto:communication@bayonne.fr)

## Hautagaiaren Engaiatzea

### 2019KO BAIONAKO BESTETAKO AFITXAREN SORTZEA

Kontratu hau nahitaez bete, eguna emanik eta izenpetu behar duzue eta, berantetik, 2019ko urtarrilaren 28an, ostiralarekin, 12:00etan e-postaz ondoko helbidera igorriko duzuen afitxa egitasmoari erantsi beharko diozue: [communication@bayonne.fr](mailto:communication@bayonne.fr)

Deitura: \_\_\_\_\_ Izena: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Kode postala: \_\_\_\_\_ Hiria: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_

E-posta: \_\_\_\_\_

Ziurtatzen dut:

- « 2019ko Baionako Bestetako afitxaren sortzea » kontsultaren araudiaren berri hartu dudala.

- egun honetan helarazi dudan afitxa egitasmoak eskubiderik gabeko jatorrizko obra aurkezten duela.

\_\_\_\_\_ (a)n

\_\_\_\_\_ (a)n egina

Izenpedura